

IGOR-EN EGUNEROKOA

Eneko Pérez

Lasarte-Oria, 13 urte

*Liburu hau Kosovon bizi den jendeari eta gerran hil
diren guztiei dedikatzen diet*

Ni Igor naiz eta 14 urte ditut. Kosovo-albaniarra naiz. Lehen behartsua nintzen eta orain gehiago. Ilea beltza dut eta begi marroiak, matrail gorri eta sudur motza. 1'66m. neurtzen dut.

Dena hasi zen politika gaitik. Badakizue Milosevich, OTAN eta gauza guzti horiek

Martxoak 22, larunbata, 24:35

Nire herriko alarmak jotzen hasi ziren. Ez genekien zer gertatzen zen baina hegazkinak bonbardeatzen hasi zirenean pentsatu genuen gerra hasi zela, eta hala zen. Ni etxean nengoen bilduta nire familia osoarekin: Aita, ama, osaba eta anaiarekin. Korrika joan ginen denok (nire anaia izan ezik, 2 urte dituelako) babes tokira. Han jende piloa zegoen gordeta. Nire gelako asko zeuden eta horrekin distraitu nuen nire burua. Nire anaia nigarrez hasi zen eta normala da. Oso txikia denez aparte, bildur handia zuelako. Haiek joatean denok lasaitu ginen eta bakoitza bere etxera joan zen.

Martxoak 23, igandea, 24:10

Gaur urduriago gaude zeren eta badakigu edozein momentutan alarma jo dezakeela. Eta hala

gertatu zen. Atzo bezala babes tokira joan ginen denok eta ikusi genuen nola erortzen ziren etxeak bonbengaitik. Iraunkorragoa izan zen eta 02:45 arte ez ziren bonbardeaketak bukatu. Nire lagun batzuen etxeak suntsituta daude baina nirea oraindik ez, suerte handia dut.

Martxoak 24, astelehena, 8:00

Ikastolara joateko prestatzen ari nintzenean berriro ere alarmak entzun nituen eta bi aldiz pentsatu gabe amari esan nion ikastolara joango nintzela. Hara iristean 3 ikasle eta irakasle 1 besterik ez geunden, baina klasea eman genuen. Irakasleak esplikatu zizkigun politikako gauza horiek (nahiz eta guk ezer ez ulertu). Baina bapatean inork pentsatu gabe militarrek sartu ziren gure klasean eta Ali (gure andereñoa) jotzen hasi ziren ez zelako uzten bortxatzen. Gu denok (hirurak) korrika atera ginen gelatik. Baina zoritxarrez Lauren harrapatu zuten eta tiro bat bota gainera. Nire lagun Hakin eta ni besterik ez ginen geratzen eta zera esan nion: Hakin, etor zaitez nire etxera. Han zure txabolan baino hobeto egongo gara. Eta berak baietz esan zidan.

Etxera iristean Hakin nire gurasoei aurkeztu nien eta etxean gelditzeari buruz ondo iruditu zitzaien.

Martxoak 25, asteartea, 6:00

Hakin lorik ezin eginik zegoen eta ni aspertu nintzenean esanatu nintzen eta zera esan nion:

– Hakin, ezin al duzu lorik egin?

- Ez. Laurenetaz asko oroitzen naiz eta.
- Bai. Oso lagun ona zen eta majoa gainera.
- Zuk bezala pentsatzen dut.
- Zorte ona izan dugu zeren eta zu "beltza" zarenez, arrazoi honengaitik zu hil zintuzketen. Horrela bukatu zen gure elkarrizketa.

Goizeko 9:15

Hakin eta ni esnatu bezain azkar alarmak jo zuen. Hakin kantzontziloetan atera zen baina ni hori baino gutxiagorekin. Babes tokira joan ginen denok eta han babesean geunden baino bidean OTAN-eko batek ama harrapatu zuen eta berarekin eraman zuen (ez dakit nora baina ez oso leku onera). Handik etxera joatean aita ikusi nuen bere buruari bronka botatzen eta esan nion:

- Aita, zer egiten ari zara?
- Haserre nago eta neure buruari bronka botatzen ari naiz.
- Baina, zergatik?
- Beti gu (kosovar-albaniarrak) izan behar gara galtzen ateratzen garenak. Zeren eta pobreak garenez, oraindik ere pobreagoak izatea nahi dutelako. Eta hor bukatu zen gure elkarrizketa.

Orain Milosevich eta OTAN hitz egiten ari dira baina ados jartzen ez direnez, ala! Kosovo bonbardeatzera.

Eguerdiko 12.00

Hakinetaz ez dizuet asko hitz egin. Bera Afrika-tik orain dela 7 urte ilegal bezala etorri zena da.

Orain 13 urte ditu (nik baino 1 gutxiago). Eta bere historia harrigarria da. Kontatuko dizuet.

1992. urtean El Cairo herrian atentatu bat izan zen bonbaz, eta bere aita eta bi anaiak hil egin ziren. Berari esku bat falta zaio orain, orduan erre egin baitzitzaion. Orduan bere ama eta bera txalupa txiki batean sartu eta handik irten ziren, bizi modu hobearen bila. Eta hala, hona iritsi zirenean, ikastola bilatu zuen bere amak Hakin-entzat eta bere amak orain Kosovoko hotel batean rezeptionista bezala egiten du lan. Historia harrigarria. Ezta?

Goiza alde batera utzita, gaurko eguna lasaia izan dela esan dezaket. Ez du berriro alarmerik jo, ez dute ezer bonbardeatu... Gainera aita lanera joan da. Nekazaria da eta gu bizi garen baino pixka bat gorago dugu gure parzelatxo. Area bat besterik ez da (badakizue gu pobreak garela). Hakin eta ni bakarrik gaude gaur etxean eta partxisera jokatzen dugu. Normalena pasa da, nik irabazi diot, onena bainaiz.

Martxoak 28, ostirala, 10:00

Ohetik jaiki bezain azkar aita maletak egiten hasi zen eta esan nion:

– Aita, nora zoaz?

– Nora noan ez, nora goazen. Albaniara goaz hemen ez dago bizitzerik eta.

– Baina, gure etxea?

– Ez larritu. OTANekoek laister botako dute—. Eta hori esanez Hakin esnatu nuen eta albistea kontatu nion. Bera zertxobait kaskagorra da eta

esan zidan ez zela handik Albaniara joango bere ama gabe. Horrela, bere amaren txabolara autobu-sez joan ginen eta bere amaren etxera deitu genuen, militarrek ikusi genituen. Ikusi bezain azkar autobusa martxan jarri eta ziztu bizian Albaniara abiatu ginen. Hara iristean, izugarri harritu gintuen horrenbeste jende egoteak. Gutxienez horietako leku bakoitzean hamar mila pertsona bazeuden. Ez nuen inor ezagutzen baina, denak ni bezalakoak ziren: pobreak. Lehenengo eguna txarra izan zen zeren eta ez genuen inor ezagutzen eta lagunik ere ez genuen, baina denbora pasa ahala, egunak hobeagoak bihurtu ziren.

Apirilak 7, asteazkena, 11:00

Gaurkoa egun trajikoa izan da (beste batzuk bezala, edo agian gehiago). Gure txabolatxoan ginen lasai-lasai, hegazkin bat etorri eta...

BUM!! Etxe asko aurretik eraman zituen. Horietako bat geurea zen baina argi izugarri hura ikustean txabolatik aidean atera nintzen beste alde baterantz eta bonbak eztanda egin zuenean nere barnean ere izugarrizko suntsipena egin zidan. Hamar minutu geroago paisai enkoniagarri hura ikustean nigarrez hasi nintzen nire malko guztiak amaitu arte. Pentsatzearekin bakarrik triste jartzen nintzen. Lehenik Lauren, ondoren amatxo eta azkenik aita eta Hakin, hau zori txarra. Bakarrik nago, ez dut inor, ez familiarik ezta lagunik ere. Istripuari bueltak eman ondoren zera pentsatu nuen:

Nolatan deskuidatu zitekeen gure taldea kamioi militar batekin? Hori bai berrehun pertsona inguru hil zituen .

Fernandoren familiakoak oso atseginak ziren eta ni beste seme bat bezala hartu ninduten nahiz eta beraiek oso familia ugaria izan: Dani aita, Alba ama, eta lau seme-alaba. Mutilak Dani eta Dino ziren, neskak berriz, Mirian eta Joana. Orain nirekin zazpi izango gara.

Apirilak 15, osteguna, 10:30

Aste hau oso azkar pasatu zait, zeren Dani nire adinekoa da eta berarekin sarri ibili bainaiz. Besteekin ere ibiltzen naiz baina gutxiago. Eta Danik (aitak) esan zidan:

- Hemen oraindik ere arriskuan gaude. Gurekin etorri nahi al duzu Greziara?

- Beno, ez al dut oztoporik egingo?

- Ez mutil, zu lasai. Kamioi bat badugu eta han denok sartuko gara.

- Beno ba, joango naiz-. Eta lau umeak esan zuten korora:

-Iupi!-. Orduan txabola beste familia bati eman eta Dani kamioia martxan jartzen hasi zen. Nik behar nituen gauza guztiak hartu eta kamioira igo nintzen. Albaniako mugan komeriak izan genituen pasatzeko, baina Fernandoren familiakoek pape-rak zituztenez pasatzen utzi ziguten.

Gaueko 23:00

Atenasera iristean etxe bat alokatu genuen, behintzat teilapean egoteko. Gaurko eguna zora-

garri bezala izendatuko nuke, zeren eta arriskuan ez nagoen lehen eguna baita barbaritateak hasi zirenetik.

Hurrengo eguneko planak galdetu dizkiot eta esan dit:

– Lehenik eta behin, maletak desegingo ditugu. Ondoren buelta bat emango dugu Atenasetik aspaldiko gauzak ikusiz. Eta azkenik afaltzera joango gara izugarrizko jatetxe batera. Plan ederra, ezta?

– Bai. Oso ondo iruditzen zait–. Eta Alba lotara joan zen.

– Eguneroko hau goraino beteta dut eta istorio tristeak dituenez sutara botako dut, eta, bihar beste bat erosteko esango diot Albari.